

2018 ekitaldiko “Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programaren barruan egin zenuten laguntza eskaerari buruzko ebazpenari erantsita, laguntzari buruz aspektu zehatz batzuk gogorarazi nahi dizkizugu

1.- Erakunde onuradunen betekizun eta konpromisoak. (I. eranskina 8. oinarria)

8.1. Entitate onuradunek diru laguntzak onartzeak berekin dakar honako arau hauek ezartzen dituzten betekizunen pean egotea: 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa; hura garatzeko araudia, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartua, diru laguntzen inguruan aplikagarri izan daitekeen gainerako araudia eta oinarri orokor eta berezi hauetatik ondorioztatzen direnak.

8.2. Diruz lagundutako proiektuaren inguruan argitaratzen diren materialetan eta egiten diren komunikazio eta hedapen jardueretan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea, Euskararen erabilera normalizatzeko plana Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduerara esparruan 2013-2017 aldirako onartzen duen 2014ko abenduaren 22ko Diputatuen kontseiluko erabakiak xedatutakoaren arabera (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 249 zk. 2014ko abenduaren 31koa).

8.3. Genero ikuspegia sartu beharko da diruz lagundutako proiektua diseinatu eta garatzerakoan.

8.4. Hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren komunikazio eta argitalpen guztietan.

8.5. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuak diru laguntzaren xederako ematen duen finantzaketari beharrezko publikitatea emango zaio. Horretarako, haren irudi instituzionala sartuko da, finantzaketa publikoari eta esku hartze publikoko programaren xedeari buruzko aipamenekin batera, karteletan, material inprimatuetan, baliabide elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta abarretan, hedabideetan egiten diren aipamenekin batera.

8.6. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio baldintza guztiak bete beharko dira; horien bitartez, jarduerak eta emaitzak eta inpaktuak neurtuko dira eraginkortasunetik eta eragimenetik.

8.7. Emandako diru laguntzak ondasun inbetariagarriak erosteko erabiltzen badira, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 30.4. artikuluan ezarritakoa bete behar da.

Horrenbestez, erakunde onuradunak diru laguntzaren xederako erabili behar du eskuratutako ondasun hori, gutxienez 5 urtetan erregistro publiko batean inskriba daitekeena bada, eta gutxienez 2 urtetan beste kasu guztietan.

8.8. Diru laguntza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, diru laguntza itzuli beharko da eta 14. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

2.- Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea. (I. eranskina 9. oinarria.)

Erakunde onuradunek beste batzuekin hitzartu dezakete diru laguntzaren xedeko jarduerak osoa edo zati bat beraiek egitea, baldin eta 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 28. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen badira. Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua areagotuz jarduera horri ezer gehitzen ez diotenak.

28.3 artikulua (martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak). Hirugarrenekin hitzartutako jarduerak diru laguntzaren zenbatekoaren %20 gainditzen badu, eta zenbateko hori 60.000 eurokoa baino handiagoa bada, birkontratazioak beharkizun hauek bete beharko ditu:

a) Kontratua idatziz egitea.

b) Kontratua egin baino lehen, diru laguntza ematen duen entitateak hartarako baimena ematea oinarri arautzailetan ezarritako den moduan.

3.- Diru laguntzak ordaintzea. (I. eranskina 11. oinarria.)

11.1. Diru laguntza proiektua amaitutakoan ordainduko da, 12. oinarrian aurreikusitako justifikazioa aurkeztu eta gero.

11.2. Salbuespen gisa, laguntza programaren helburua –enplegua sortzea–, entitate onuradunen ezaugarria –ekintzailtzari laguntza ekosistemaren eragilea– eta, gainera, kasu batzuetan irabazi asmo gabeko entitateak direla kontuan izanda, ordainketa aurreratuak egin daitezke, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa

moduan, pertsona, enpresa edo erakunde onuradunak eskaera egin eta finantzazio beharra duela zuritu ondoren. Laguntza-aren aurrerakinak proiektuari ekiten zaionean eta hasiera hori behar bezala egiaztatuta dagoenean ordaindu ahal izango dira, betiere, baliabide nahikoa badago eta diru laguntza osoaren % 60 gainditzen ez bada.

Halaber, diru laguntza izan ez bada hala justifikatzen duenean, ordainketa berri bat egin ahal izango da, lehen egindako ordainketa gehituta diru laguntza osoaren % 85ekoa baino txikiagoa izan behar duena, betiere lehen aurreratutako diru kopurua behar bezala eta dokumentuz zuritu bada, beharrezko finantzaketa egiaztatzen bada, baliabide nahikoa badago eta diruz lagundutako jardueren gauzatzeko erritmoarekin eta aurkeztutako zuriaketekin bat baldin badator.

Gainontzeko kopurua proiektuaren amaieran eta 12. oinarrian aurreikusten den dokumentazioa aurkeztean ordainduko da.

11.3 Salbuespen gisa, emandako diru laguntza oso-osoan ordaindu ahal izango da proiektua edo jarduerak amaitu baino lehen, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa moduan, horretarako banku edo finantza erakundearen abala aurkeztu beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz nahikoa dena. Banku edo finantza erakundearen abal hori aurreratutako diru laguntzari eta aurrerakina ematen den une beretik eta proiektua gauzatu arte sortzen diren berandutza interesei erantzuteko modukoa izango da. Berandutza intereszat joko da uneko diruaren legezko interesa.

Abala indargabetu egingo da diru laguntza xedeko proiektua amaitu dela deskargu tekniko, ekonomiko eta finantzarioz egiaztatzen denean, hain justu, 12. oinarrian aurreikusten den dokumentazioa aurkeztuta.

11.4. 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 32. artikuluan ezarritakoari jarraituz, ez dira ordainketak egingo entitate onuraduna edota enpresa laguntzaileak zerga betebeharreran eta gizarte segurantzakoetan egunean egon arte. Hori dela eta, ordainketa jaso aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioan, aipatutakoa egiaztatzen duten dokumentuak erantsi beharko dira. Dokumentazio hori Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreekako Departamentuari espresuki emandako baimenarekin ordezkatu daiteke, hartara dagokion administrazioak datu horiek zuzenean eman diezazkion.

4.- Diruz lagundu daitezkeen kostuak. (IV. eranskina 4. oinarria.)

Diruz lagunduko diren kostuak ondorengoak izango dira:

- Pertsona edo talde sustatzailearen dedikazioa (600 euro/hilabete gehienez).
- Enpresa esparruan edo proiektuaren araberrako berariazko esparruan gaitasunak eskuratzea.
- Kanpo aholkularitza eta laguntza teknikoaren gastuak.
- Prospekzio azterlanak eta dokumentazioa.
- Azoketara joatea, bidaiatzea eta abar.
- Maketa eta prototipoak egitea.

5.- Diruz lagundu daitezkeen kostuak. (III. eranskina 4. oinarria.)

12.1. Kasu guztietan, diruz lagundutako jarduerak bukatu duela zuritu beharko du erakunde onuradunak, baita diruz lagundutako jarduerak sortutako kostuak ere.

12.2. Diru laguntza xedeko proiektua edo jarduerak hilabeteko epearen barruan zuritu behar da, eta epe hori diruz lagundutako proiektu edo jarduerak hori gauzatzeko epea, urteko deialdian ezarriko dena, amaitzen denetik kontatuko da.

12.3. Aurreko paragrafoan aipatu hilabeteko epearen barruan erakunde onuradunak kontu zurigarria aurkeztu behar du honako dokumentuekin:

— Diru laguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen jarduerak memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuaren web orrian eskuragarri dagoen ereduaren arabera. Proiektua gauzatu bitartean sortutako agiri eta txosten guztiak erantsi beharko dira, baita proiektuari buruzko dokumentazio grafikoa, argazki bidezkoa edo ikus-entzunezkoa.

— Memoria ekonomikoa, jardueren kostuak zurrizteko, honako eduki hau izango duena:

a) Jardueraren kostuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua identifikatuz, baita zenbatekoa, horren jaulkipen data eta, beharko balitz, baita ordainketa data ere. Diru laguntza aurrekontu baten arabera eman denean, gertatu diren desbideratzeak adieraziko dira.

b) Fakturak edo merkataritzaren trafiko juridikoan froga baliokide diren edo administrazioan eragina duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan gehitu direnak, alegia, eta, beharko balitz, ordainduaren edo dudarik gabe konprometitu denaren dokumentazioa.

c) Beharko balitz, aurreko a) paragrafoan aipatu den zerrendara gehitutako gastu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraziko dira.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili diren bestelako sarrera edo diru laguntzen xehetasunezko zerrenda, baita horien zenbatekoak eta jatorriak ere.

e) Entitate onuradunak, ekipo-ondasunen horniduran edo aholkularitza edo laguntza teknikoaren arloko enpresen zerbitzu-prestazioan, diruz laguntzeko moduko 15.000 euroko edo hortik gorako kostuak egin baditu, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako aukeraketa egiaztatzen duen dokumentazioa, hain zuzen ere 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.3 artikulua diotenaren bidetik, non eta laguntza horren ezaugarri bereziak direla-eta behar adinako enpresa edo profesionalik ez dagoen zerbitzu horiek emateko, edo kostua diru laguntza eskatu aurretik egin den. Aurkeztu diren eskaintzak, justifikazio fasean edo, bestela, diru laguntza eskaeran aurkeztu behar direnak, efizientzia eta ekonomia irizpideen arabera hautatuko dira. Hautatutakoak proposamen ekonomikorik onenak ez badira, berariaz zuritu beharko dira memoria batean. **(Garatu den prozedura bete dela frogatuko duen dokumentazioa atxiki beharko da)**

— Ziurtagiri eguneratuak, zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea egiaztatzen dutenak. Horren ordez, onuradunak baimena eman ahal du espresuki organo eskudunek aipatu informazioa zuzenean laga diezaioten Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko Departamentuari.

12.5. Kostuak egiaztatzeko, jatorrizko agirien kopia elektronikoa, informatikoa edo telematikoa aurkeztuko da, betiere agiri horiek egiazkoak direla, osorik daudela eta gorde daitezkeela bermatzen bada.

12.7. Onuradunak 4 urtez gorde behar ditu derrigorrez diru laguntzaren xedeko izan den jarduera egin izanaren zurigariak, hala nola jasotako funtsa erabili izanaren egiaztagiria. Zurigarri horiek guztiak aurkezteko ezarrita dagoen aldia amaitzen den une berean hasiko da kontatzen epe hori.

12.8. Oinarri honetako 3. eta 4. ataletan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren, organo instruktoreak egoki diren egiaztapenak egingo ditu.

Egiaztapen horien bidez ondorioztatuko balitz diruz lagundutako jardueraren kostua emandako diru laguntza baino txikiagoa izan dela, diru laguntza doitu egingo da. Diru laguntza zurrizteko baldintza guztiak edo batzuk ez direla bete edo diru laguntzaren xedea ez dela zati batean edo osoan bete ondorioztatzen bada, onuradunari jakinaraziko zaio hori, egindako egiaztapenen emaitzekin batera. Halaber, diru laguntza kobratzeko eskubidea galdutzat jotzeko prozedurari ekingo zaio edo, kasua balitz, 14. oinarrian aurreikusten den prozedurari, emandako diru laguntza osoa edo zati bat itzularazteko.

6.- Ebazpena aldatzea. (I. eranskina 13. oinarria.)

13.1. Diruz lagundutako jarduera burutzeko ezarri den epea amaitu baino lehen, diru laguntza emateko ebazpena aldatzea eska dezake onuradunak, ezarritako epea luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko, diruz lagundutako aurrekontu sailak aldatzeko edota jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek onar daitezke beren arrazoia ustekabeko zirkunstantzietan oinarritzen denean edota jarduera burutzeko premiazkotzat jotzen direnean, baldin eta diru laguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta besteren batzuk kaltetzen ez badira.

7.- Ez-betetzeak eta itzulketak. (I. eranskina 14. Oinarria)

14.1. Entitate onuradunak ez badu betetzen oinarri arautzaile hauetan, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan eta gainontzeko araudi aplikagarrian ezarrita dauden baldintzetakoren bat, laguntza jasotzeko eskubidea galduko du erabat edo neurri batean, eta jasotakoa itzuli beharko du osorik edo neurri batean, aipatutako foru arauaren 35. artikuluan xedatutakoaren arabera legezkiokkeen berandutza interesekin batera, eta, erantzukizunak eskatuko zaizkio, aipatutako foru arauaren 49. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera.

14.2. Bete gabe utzi dena mailakatzeko, proportzionaltasunaren irizpideak erabiliko dira, eta irizpide horiek organo instruktoreak balioetsiko ditu, egindako lanen arabera onuradunak proiektua zer neurritan burutu duen eta zenbateko diru laguntza jaso duen kontuan hartuta.

14.3. Proiektuaren bideragarritasunagatik edo izaeragatik, edo behar bezala zurrizteko bestelako arrazoiengatik ezingo balitz lana bukatu edo aurrera jarraitzea komeniko ez balitz, diru laguntza bukatutzat eman eta eten ahal izango da, bi aldean artean adostuta.

14.4. Borondatezko itzulketatzat jotzen da pertsona ala entitate onuradunak diru laguntza ematen duen organoak eskatu gabe egiten duena.

Itzultzeko prozedura hasteko, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oregako foru diputatuari, eta bertan, datu hauek sartu behar ditu, betiere:

- Entitatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Entitatearen ordezkartzan jarduten duenaren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Borondatezko itzulketa egiteko arrazoien azalpena.
- Tokia eta data.
- Sinadura.

Idatzi horrekin batera, agiri bat aurkeztu behar du egiaztatzeko itzulketa egin dela deialdiak zehaztutako finantza-erakundearen kontu zenbakian.

Borondatezko itzulketa gertatzen denean, dagozkion berandutza interesak kalkulatuko ditu diru laguntza ematen duen organoak.

8.- Europar Batasuna (I. eranskina 15. oinarria)

IV. eranskinetan aurrekusetako diru laguntzak, «de minimis» laguntzatat joko dira eta ez zaie aplikatu behar sektore, enpresa edota lurralde izaera duten eragile eta elkarteei, ezta ekintzailletza babesten duten erakundeei ere. Beraz ondorengo erregelamenduan xedatutakoa aplikatuko da, hotz, 2013ko abenduaren 18ko Europar Batzordearen 1407/2013 EB Erregelamendua, minimis laguntzei Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Itunaren 107 eta 108. artikulua ezartzeari buruzkoa (2013ko abenduaren 24ko Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala). Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, emandako MINIMIS laguntzek guztira ez dute 200.000 euro baino gehiago izan behar hiru zergalditan.

9.- Finantzaketa komunitarioa (I. eranskina 16. oinarria)

16.1. Diru laguntzaren xede diren jarduerak Europar Batasunak aurrekusetako helburu eta ekintzekin bat datozen heinean, finantzaketa komunitarioa lortzeko izapidetuko dira.

16.3. IV. eraskinari dagozkion oinarriak eta deialdia bat datoz Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren (EGEF) Euskal Autonomia Erkidegorako 2014-2020 programa operatiboarekin.

16.4. Europar Batasunarekin batera finantzatzen diren diru laguntzak komunitateko araudiak eta garapen eta transposizio arauak arautuko dituzte, kasuan kasu.

16.5. Europar Batasunaren kofinantzaketa lortuz gero, diru laguntzaren xedeari buruzko aipamen publiko orotan jasota geratuko da: EGEFen (Eskualde Garapenerako Europar Funtsa) %50eko finantzazioa, lelo hau jarrita: «Europa egiteko modu bat».

16.6. Diruz lagundutako entitateak bermatu egin behar du 2014-2020 EGEF programa operatiboari dagozkien kostuen eta kontu ikuskaritzen egiaztagiriri guztiak Batzordearen eta Kontuen Auzitegiaren eskura egongo direla hiru urteko epean, programa ixten denetik hasita, edo, egin diren urtetik hasita

10.- Proiektuak gauzatzeko data.

Erakunde onuradunek **2019ko irailaren 30rako** amaitu behar dituzte diruz lagundutako proiektuak.

INFORMAZIO GEHIAGO

- Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programaren oinarri aldaketa eta 2018ko deialdia (GAO 2018ko apirilak 18, 74 zk.)
- Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programaren diru laguntzen oinarri arautzaileak (GAO 2017ko uztailak 4, 127 zk.)



- Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko, 3/2007 FORU ARAUA. (G.A.O. 2007ko apirilak 12, 71 zk.)
- Apirilaren 29ko 24/2008 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duena. . (G.A.O. 2008ko maiatzak 6, 85 zk.)